

Eragile eta langile ugari batu dira sexu erasoen aurkako bilkuran



Leioako Campusean egindako konzentrazioaren irudi bat.

Leioako Campusean, 12:00etan jarria zuten hitzordua Mikel Laboa Plazan ikasleen eragile ezberdinek Arte Ederren Fakultatean hango ikasle batek jasandako sexu-erasoa salatzeke. Ikasleen elkarte ezberdinek, andrazko ikasle feministen elkarateek, PREST (Presoen Sostengu Taldea), zenbait Fakultetetako ikasle batzarrak... LABek ere konzentrazioarekin bat egiten zuela adierazi zuen eta langilegoa deitu zuen elkarretaratzera. Azkenik, Errektore Taldeak, aurreko egunean ere bat egin zuen deialdiarekin.

Irudi zinez ezohikoa izan zen plazaren inguruan ikasleek, langileek eta errektore taldeak sexu-erasoa salatu eta erasotutako ikasleari elkartasuna erakusteko utzitakoa. Honetan ikasleak ziren deitzaileak eta eurei egokitu zitzaaien gertatutakoaren inguruko balorazioak egitea.

Guk, gure aldetik, konzentrazioa deitzeko esandakoan berresten gara: ez dugu onartuko ezelako sexu-erasorik, ezta genero-indakeriarik. Eta gertatzekotan, erantzuteko mobilizazioa deitzeko konpromisoa hartzen dugu.